



## ERDAINKUNTZA (ZIRKUNZISIOA) Zaintza eta Gomendioak

### Zertan datza ebakuntza hau?

Ebakuntza hau zakil-mokoa agerian uztea eragozten duen azala (prepuzioa) kentzean datza, sexu-harreman normal batzuk ahalbidetzeko eta eragozpenak eta infekzioak izateko arriskua gutxiagotzeko.

Ebakuntza hau ANESTESIA LOKAL ETA SEDAZIOarekin egiten da.

### Nola prestatu behar dut neure burua?

Ebakuntza egin aurretik, baraurik egon behar zara, 6 orduz.

Alergiarik edo koagulazioaren asaldadurarik izanez gero, jakinaz iezaguzu; garrantzitsua da.

### Zer egin behar dut ebakuntza egin ondoren?

- ❖ EZ gidatu, ebakuntza egin ondoren.
- ❖ Afari arina egin (jogurta, natillak, salda, flana, purea....).
- ❖ Hartu alta ematean agindutako medikazioa. Sendagaien bat hartzen baduzu, gau horretatik berriro hartu dezakezu.
- ❖ Temperatura hartu gauean eta goizean, ebakuntza egin eta ondorengo 4 egunetan.
- ❖ Ez dutxatu 24 ordu pasa arte. Ondo lehortu ebakuntza-eremua igurtzi gabe, ukituz edo lehorgailuz eta eman Betadine®.
- ❖ Jostura-puntuak berez eroriko dira.
- ❖ Etxean atsedean hartu behar duzu ebakuntzaren ondorengo 2 egunetan, baina ez erabatekoa. Ez duzu zertan ohean egon.
- ❖ Ez egin ahalegin edo ariketa bortitzik, ez eta kirolik ere, 2 egunetan.
- ❖ Zakil-mokoa zertxobait handitu daiteke aldi batean.
- ❖ 48 orduan behin zure osasun-zentrora joango zara, sendaketa egitera.

### HONELAKORIK BADUZU:

- 38°ko sukarra edo altuagoa baduzu.
- Zauria oso handituta baduzu.
- Mina baduzu eta aringarriekin kentzen ez bada.
- Odola darizula bazaude edo apositu osoa odoletan baduzu.

Familia-medikuarengana edo larrialdietara jo.